



**Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa**

**NAFARROAKO ARARTEKOAREN AURREAN AZKEN
LAU URTEETAN EUSKARAZ AURKEZTUTAKO KEXA
KOPURUARI BURUZKO TXOSTENA**

2019

AURKIBIDEA

I. SARRERA	3
II. INFORMAZIO-ESKAERARI ERANTZUTEA.	4

I. SARRERA

2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak, Navarra Suma Parlamentu Taldeko foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak eskatuta, honako erabaki hau hartu zuen:

"Nafarroako Arartekoari euskaraz egindako kexen inguruan edo euskararekin zerikusia duten gaien inguruan txosten bat egin dezala eskatzea".

Bozeramaileen Batzordearen erabakia 2019ko azaroaren 27an igorri zitzaion Nafarroako Arartekoari, eta bertan sartu zen erregistroan.

Erabaki horrekin batera, foru parlamentari horren idazkia aurkeztu zen, 2019ko irailaren 18koa, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Arartekoari honako gai hauei buruzko txostena egiteko eskatuz:

"1. Arartekoaren aurrean, azken lau urteetan, euskaraz aurkeztu diren kexetatik zenbat ez dira euskararekin edo hizkuntza eskubideekin lotzen?

2. Arartekoaren aurrean, azken lau urteetan, euskararen inguruko zenbat kexa aurkeztu dituzte norbanakoek eta zenbat kolektiboan?

3. Arartekoaren aurrean, azken lau urteetan, euskaraz aurkeztutako kexetatik zenbat aurkeztu dituzte norbanakoek eta zenbat kolektiboan?

4. Arartekoaren aurrean, azken lau urteetan, euskaraz aurkeztutako kexetatik eta euskarari buruzko gaiekin zerikusirik ez dutenen artean zenbat aurkeztu dituzte norbanakoek eta zenbat kolektiboek?

5. Arartekoaren aurrean, azken lau urteetan, aurkeztutako kexen batukaria, euskararekin lotutako gaietako buruz, elkarte edo pertsona bakoitzeko.

6. Arartekoari azken lau urteetan aurkeztutako kexen batukaria, euskaraz, baina harekin zerikusirik ez duten gaietako buruz, elkarteek eta norbanako bakoitzak aurkeztuak".

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordearen eskaera aztertu ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 16. d) artikuluan xedatutakoarekin bateragarritzat hartu zen.

Lege-agindu horren arabera, Nafarroako Arartekoak txostenak egin ditzake bere eskumeneko arloan, hau da, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesten dituzten eskubide eta askatasunen defentsan eta hobekuntzan, Nafarroako Parlamentuak eskatuta.

Txosten-eskaera Nafarroako Arartekoaren aurrean, azken lau urteetan, herritarrek euskaraz edo euskarari buruz aurkeztutako kexa-kopuruari buruzkoa da, bakarka ala taldean.

Ondorioz, txostena egitea erakunde honen eskumenen barruan sartzen da, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako eskubide eta askatasunak defendatzeko eta babesteko duen funtzioaren barruan, Foru Komunitatearen eskumen-eremuan (Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. ter artikuluko 1.).

II. INFORMAZIO-ESKAERARI ERANTZUTEA.

Informazio eskaera azken lau urteei buruzkoa da. Informazio osoa emate aldera, 2015, 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldiei buruzko informazioa aurkezten da, azken lau ekitaldi osoei buruzkoa, bai eta 2019ko informazioa ere, azaroaren 30era artekoa, txosten hau ixtean eskuragarri dagoena.

1. Arartekoaren aurrean, azken lau urteetan, euskaraz aurkeztu diren kexetatik zenbat ez dira euskararekin edo hizkuntza eskubideekin lotzen?

2015eko ekitaldia: 24

2016ko ekitaldia: 7

2017ko ekitaldia: 3

2018ko ekitaldia: 5

2019ko ekitaldia (urtarrila-azaroa): 26

2. Arartekoaren aurrean, azken lau urteetan, euskararen inguruko gaiei buruz zenbat kexa aurkeztu dituzte norbanakoek eta zenbat kolektiboan?

2015eko ekitaldia:

- Norbanakoak: 600
- Kolektiboak: 10

2016ko ekitaldia:

- Norbanakoak: 13
- Kolektiboak: 3

2017ko ekitaldia:

- Norbanakoak: 9
- Kolektiboak: 8

2018ko ekitaldia:

- Norbanakoak: 23
- Kolektiboak: 29

2019ko ekitaldia (urtarrila-azaroa):

- Norbanakoak: 8
- Kolektiboak: 18

3. Arartekoaren aurrean, azken lau urteetan, euskaraz aurkeztutako kexetatik zenbat aurkeztu dituzte norbanakoek eta zenbat kolektiboan?

2015eko ekitaldia:

- Norbanakoak: 621
- Kolektiboak: 8

2016ko ekitaldia

- Norbanakoak: 9
- Kolektiboak: 5

2017ko ekitaldia:

- Norbanakoak: 5
- Kolektiboak: 8

2018ko ekitaldia:

- Norbanakoak: 12
- Kolektiboak: 29

2019ko ekitaldia (urtarrila-azaroa):

- Norbanakoak: 27
- Kolektiboak: 19

4. Arartekoaren aurrean, azken lau urteetan, euskaraz aurkeztutako kexetatik eta euskarari buruzko gaiekin zerikusirik ez dutenen artean zenbat aurkeztu dituzte norbanakoek eta zenbat kolektiboek?

2015eko ekitaldia:

- Norbanakoak: 23
- Kolektiboak: 1

2016ko ekitaldia:

- Norbanakoak: 3
- Kolektiboak: 4

2017ko ekitaldia:

- Norbanakoak: 2
- Kolektiboak: 1

2018ko ekitaldia:

- Norbanakoak: 3
- Kolektiboak: 2

2019ko ekitaldia (urtarrila-azaroa):

- Norbanakoak: 24
- Kolektiboak: 2

5. Arartekoaren aurrean, azken lau urteetan, aurkeztutako kexen batukaria, euskararekin lotutako gaien buruz, elkarte edo pertsona bakoitzeko.

2015-2018ko ekitaldiak guztira:

- Gizabanakoek aurkeztutakoak: 645 (zenbateko horretatik, 592 kexa Etxarri-Aranatzen osasun zentroko osasun-langileek euskaraz artatu ahal izatea eskatzen dute, eremu euskalduneko hainbat udalerrri artatzen dituen).
- Elkarteek aurkeztutakoak: 50
 - Administrazioan Euskaraz Taldea: 29
 - Behatokia-Hizkuntz Eskubideen Behatokia: 13
 - Baztango Udala: 2

- Erronkariko haraneko Batzar Nagusia: 1
- Zizurreko Zendeako udalerriko hainbat kontzeju: 1
- Nafarroako Odontologoen eta Estomatologoen Elkargo Ofiziala: 1
- Altsasuko Bihotz Sakratua Ikastetxea: 1
- Zizur BHI ikastetxeko irakasleen plantilla: 1
- ELA sindikatua: 1

2019ko ekitaldia (urtarrila-azaroa):

- Gizabanakoek aurkeztutakoak: 8
- Elkaratek aurkeztutakoak: 18, guztiak Administrazioan Euskaraz Taldeak aurkeztutakoak izan dira.

6. Arartekoaren aurrean, azken lau urteetan, aurkeztutako kexen batukaria, euskaraz aurkeztutako kexetatik eta baina euskarari buruzko gaiekin zerikusirik ez dutenen artean zenbat aurkeztu dituzte norbanakoek eta zenbat kolektiboek.

2015-2018ko ekitaldiak guztira:

- Norbanakoak: 31
- Elkaratek aurkeztutakoak: 8
 - Aizarotzeko Auzo Elkartea: 1
 - Baztango Udala: 1
 - Berako Udala: 1
 - Etxerat Elkartea: 1
 - Arrano Elkartea Xake Taldea: 1
 - Kalaxka Elkartea: 1
 - Haur-hezkuntzako jardunaldi jarraitu malguaren ebazpena berrikustearen aldeko familiak: 1
 - Orkoiengo bizilagunak – Vecin@s de Orkoien: 1

2019ko ekitaldia (urtarrila-azaroa):

- Gizabanakoek aurkeztutakoak: 24
- Elkaratek aurkeztutakoak: 2, STEE-EILAS sindikatua eta Katxiporreta Kooperatiba.

Eta ohorea da, hain zuzen ere, Nafarroako Parlamentuak erakunde honi egindako txosten-eskaerari buruzko informazioa ematea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 12an.

**El Defensor del Pueblo de Navarra
Nafarroako Arartekoa**

Francisco Javier Enériz Olaechea